

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA 2022ko AZAROAREN 21eko OHIKO BILKURAREN AKTA

Bertaratuak:

José Antonio Rodríguez jauna, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzaren sailburuordea eta Kontseiluko presidentea.

Noemí de la Fuente andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Leixuri Arrizabalaga andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen, Berdintasunen eta Herritarren Partaidetzaren Batzordeko presidentea.

Mikel Hidalgo jauna, kanpo-ekintzaren arloko eskumeneko saila ordezkatzuz.

Ibon Arbaiza jauna, nekazaritzaren arloko eskumeneko saila ordezkatzuz.

Miguel Sánchez jauna, osasunaren arloko eskumeneko saila ordezkatzuz (13:56an iritsi da, bigarren bozketa baino lehen).

Paul Ortega jauna, eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria.

Zuriñe Elordi andrea, Emakunde ordezkatzuz.

Ainhoa Campo andrea, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ignacio Rodríguez jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz.

Juan Manuel Balerdi jauna, Euskal Fondoa ordezkatzuz.

Milagros Domínguez andrea, Iñigo Eguren jauna, Arantza Acha andrea, Mónica González andrea, Eneko Gerrikabeitia jauna, Iñaki Orube jauna, Jesús Ochoa jauna, Martín Iriberrí jauna eta Irene Molero andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

Zalao Pérez andrea, Estela Ciprian andrea, Alberto Cereijo jauna, Marta Macho andrea (UPV-EHU), garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz.

Presidenteak gonbidaturik, honako hauek bertaratu dira, hitzarekin baina botorik gabe:

Natalia Rodríguez andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

Aitor Pérez jauna eta David Utrero jauna, Economistas de la Cooperación - ECOPER erakundeko aholkulariak, gai-zerrendako 5. punturako.

Ana Tellería andrea, eLankidetzaren Koordinazio teknikoaren Zerbitzuko, Kontseiluko idazkariari laguntzeko.

Ezin etorria adierazi dute honako hauek:

Josu Urrutia jaunak, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidentea eta Kontseiluko presidentea.

Hernando Lacalle jaunak, ogasunaren arloko eskumeneko saila ordezkatzuz.

Begoña Pedrosak, hezkuntza-saila ordezkatzuz.

Amaia Barredo andreak, ingurumenaren arloko eskumeneko saila ordezkatzuz.

Fernando San Martín jaunak, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ernesto Sainz jaunak, EUDEL ordezkatzuz.

Gorka Urrutia jaunak eta Elsa Fuente andreak, garapenerako lankidetzako beste gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz.

Lekua: eLankidetzako egoitza.

Eguna eta ordua: 2022ko azaroaren 21a, 12:30ean.

Urteko laugarren ohiko bilkurari hasiera eman dio presidenteak, agurrarekin. Presidenteak adierazi duenez, sailburuak ezin izan du bilkurara bertaratu, agenda-arazoak tarteko, eta aurkezpenen txandari ekin dio. Euskadiko GGKEen Koordinakundeak eskatuta, azaroaren 17an, batzorde iraunkorrek hasieran helarazitako gai-zerrendari beste puntu bat gehitzea erabaki zuela azaldu du; beraz, gai-zerrenda honako hau izango da:

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea.
2. *2023rako aurrekontu orokorrak egitean aintzat hartzeko adierazpena eztabaidatu eta onartzea.*
3. Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariaren 2021eko txostena aurkeztea.
4. *Osasun Globala, Ginea Bissauko osasun-sistema publikoa indartzeko programa* ekimenari buruzko informazioa.
5. Lankidetzaren deszentralizatuari buruzko txostena aurkeztea eta egindako aurrerapenei buruzko eztabaida.
6. Galde-eskeak.

Eragozpenik ez dagoenez, gai-zerrendako lehen puntuari ekin zaio.

1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

Aurreko bilkura 2022ko irailaren 28an izan zen, eta bilkura horretako akta aho batez onartu dute bertaratutakoek, inolako eragozpenik gabe.



Acta CVCD
sesión_bilkuraren_a

2. 2023. URTERAKO AURREKONTU OROKORRAK EGITEAN AINTZAT HARTZEKO ADIERAZPENA EZTABAIDATU ETA ONARTZEA

Presidenteak gogorarazi du puntu hau Euskadiko GGKEen Koordinakundeak eskatuta sartu dela gai-zerrendan, eta Milagros Dominguezi eman dio hitza proposamena aurkez dezan.

Milak esan du Koordinakundearen adierazpena bidaltzea erabaki zutela, uste dutelako 2007ko Lankidetzaren Legean jada jasota dagoen eta izapidetzen ari den lege-aurreproiektuan berresten den % 0,7ko konpromisoa ez dela gauzatu erakunde gehienetan.

Gainera, aipatu duenez, lankidetzarako aurrekontuak aurrekontu orokorraren urteko igoyerarekiko proportzioan, gutxienez, handitu beharko liritekeelakoan daude Koordinakundearen.

Halaber, adierazpena koordinatzailearentzat tresna ona dela diote, baina baita lankidetzaz-zerbitzuetarako ere, beren erakundeetan lana eta proposamen politikoak egin ahal izateko.

Milaren azalpena bukatutakoan, presidenteak eskerrak eman dizkio bere hitzengatik eta adierazpenaren tonuagatik, aldarrikatzailea eta, aldi berean, eraikitzailea ere iruditu zaio eta. Baina, aipatu duenez, adierazpenaren edukiarekin ados dagoen arren, ez zaio une egokia iruditzen. Adierazi du Jaurilaritza ez dela gai izan aurrekontuak nahi zuen moduan aurkezteko, eta, aurrekontuak aurkeztu ondoren, ez zaiola egokia iruditzen Jaurilaritzak egin ez duena Legebiltzarrari egin dezan eskatzea. Eta jakinarazi du, horregatik, Gobernuak kideen jarrera abstentzioa izango dela.

Ignacio Rodríguezek esan du dokumentuarekin ados dagoela, hitzez hitz, baita presidentearen gogoetekin ere. Adierazi duenez, Bizkaiko Foru Aldundian ahalegina egiten ari dira, aurrekontua arian-arian handituz % 0,7 horretara iristeko bidean. Baina adierazpenaren unea desegokia dela dio. Uztaileko bilkuran, lege-aurreproiektuaren nahitaezko txostenaren onarpenaren harira, Jesús Ochoak aurrekontuen gaineko gogoeta egin zuela gogorarazi du, eta une hori izango zatekeela egokia adierazpena proposatzeko. Eta, horregatik, bere jarrera abstentzioa izango dela iragarri du.

Ainhoa Campok, bere aldetik, adierazpenari buruz une horretara arte esan denarekin ados dagoela adierazi du. Dioenez, Arabako Foru Aldundiak % 0,78ko konpromisoa betetzen du eta, 2020. urtean izan ezik, lankidetzarekiko konpromisoa gero eta handiagoa izan da aurrekontuetan. Bozketari dagokionez, abstenitu egingo dela esan du.

Jesús Ochoa ez dago ados lankidetzako aurrekontuari dagokion ehunekoa kalkulatzeko moduarekin eta, adierazi duenez, Koordinakundeak egindako kalkuluen arabera, Arabako Foru Aldundiak garapenerako ematen duen laguntza ofiziala Aldundiaren beraren aurrekontuaren % 0,26 da, konpromiso instituzionalak alde batera utzita. Eztabaidan aritu dira, eta datuak aztertzeke eskatu diote bata besteari.

Leixuri Arrizabalagak abstenitu egingo dela iragarri du, aurrekontua Legebiltzarrean jada eztabaidatzen ari direlako.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeko hainbat kidek hitz egin dute jarraian, eta Kontseiluak adierazpena onartzea balio handikoa izango litzatekeela nabarmendu dute, Euskadin lankidetzarekiko kezka duten erakundeak biltzen direlako bertan, lankidetzapolitikez arduratzen den erakundea delako, eta gizartean aitzindari delako Legebiltzarrari, gizarte zibilari, iritzi publikoari eta abarri begira. Jakinarazi dute, gainera, Estatuko gainerakoan, beste erakunde batzuek aurrekontua igo egin dutela (adibidez, Valentziako Generalitateak), eta euskal administrazioaren mailara iristen eta maila hori gainditzen ari direla, hamabi urte baitaramatza 50 milioitan geldirik. Pixkanaka-pixkanaka handitzea, gutxienez, nahiko lukete. Politikak koherenteak izatearen garrantzia ere nabarmendu dute; adierazpenean sartuta dago alderdi hori ere. Eta talde parlamentario guztiekin hitz egiten ere ari direla adierazi dute, lankidetzapolitika politika hutsala izan ez dadin.

Juanma Balerdik iragarri du Euskal Fondoak aldeko botoa emango duela. Eta egokia iruditzen zaio entitateen artean joera goranzkoa izan dadila, gutxienez, eskatzea.

Eztabaidaren ondoren, Kontseiluaren lehentasunezko dinamika adostasuna bada ere, presidenteak adierazi du kasu honetan beharrezkoa dela proposamena bozkatzea. Eta abstentzioaren asmoa aurrera egitea eta ondorioak izan ahal izatea dela.

Kontseiluko idazkariak argitu du bozketan gehiengoa zehazteko aldeko eta kontrako botoak hartzen direla kontuan, ez abstentzioak. Gogorarazi du, gainera, Koordinakundeak 9 boto baino ez dituela, nahiz eta 10 ordezkari egon; izan ere, 158/2008 Dekretuan ez baita aurreikusten Josu Urrutia presidentea ordezkatzeko aukera.

Bozketa egin da, eta adierazpena onartu da aldeko 14 botorekin, 9 abstentziorekin eta aurkako botorik gabe.

Jesús Ochoak galdetu du adierazpenak, onartu ostean, zer nolako ibilbidea izango duen. Josean Rodríguezek erantzun dio adierazpena Jaurlaritzara, Legebiltzarrera eta Batzar Nagusietara helaraziko dela.

3. EUSKAL LANKIDETZA PUBLIKOAREN ATARIAREN 2021eko TXOSTENA AURKEZTEA

Josean Rodríguezek Noemí de la Fuenteri eman dio hitza, Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordeko idazkari den aldetik eta inplikaturako erakunde guztien izenean, txostena aurkez dezan.

Noemí de la Fuentek gogorazi duenez, Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiek, hiru hiriburuetakoa udalek eta Euskal Fondoak aurkeztu zuten 2018ko azaroaren 30ean Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria. Aipatu du webgune horrek Euskadiren garapenerako laguntza ofizialaren ikuspegi orokorra izateko aukera ematen duela, eta honako alderdi hauei buruzko informazioa biltzen duela: (i) aipaturako erakunde bakoitzari buruzkoa; (ii) 2014tik 2021era bitarte finantzaturako proiektuei buruzkoa; eta (iii) grafikoak eta joerak, aurreko informazioan oinarrituta. Eta adierazi du azken atal horretan dagoela iaztik egiten ari den txostena, eta, laburbilduta, urteko datu nagusiak biltzen dituela. Eta honako txosten honetako datuak aurkeztu ditu: [Euskal lankidetzaren publikoaren zenbakitan 2021](#).

Presidenteak eskerrak eman dizkio Noemíri aurkezpenagatik, eta galderak, iruzkinak eta ekarpenak egiteko tarte utzi du.

Natalia Rodríguezek zorionak eman dizkie ekimenagatik, eta Ataria oso erabilgarria dela eta urtetik urtera egindako hobekuntzak sumatzen direla esan du. Bere ustez interesgarria izango litzateke beste udal batzuek sartzea, ez soilik datu osoagoa izateko zenbakiei dagokienez, baizik eta Euskadin lankidetzaren politika udalerrietan ezartzeak dakarrenagatik. Eta gaineratu du komenigarria litzatekeela erakundearen GLO/aurrekontu ratioa kalkulatzeko irizpideak homogeneizatzea, batez ere foru-mailan. Era berean, Koordinakundeak elkarrizketa horretan aurrera egiteko prest dagoela adierazi du.

Noemí de la Fuenteren esanetan, irizpideak foru-mailan homogeneizatzea Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordearen kezka ere bada, eta Kontseiluko parte-hartzaileak animatu ditu beste udal batzuek ekimenarekin bat egitera bultzatu ditzaten; dena den, azaldu duenez, zehazki 2023. urtean ezin izango da egin, udal-hauteskundeak direlako.

Jesús Ochoak adierazi du garapenerako laguntza ofizialaren zenbatekoa nola kalkulatu den ere azaltzeko geratu dela; izan ere, zenbait erakunde transferentziak bakarrik hartzen dituzte kontuan, eta beste zenbaitek langileak eta administrazio-gastuak ere sartzen dituzte. Noemíren arabera, erakunde guztiek sartzen dituzte langileen eta funtzionamenduko gastuak, bai blokean, bai ebaluazio-gastuak eta

sentsibilizazio-kanpainak bereizita, hala nola esku-hartzeak. GLOko ekintzak egiten dituzten baina lankidetzakoak berariaz ez diren beste sail batzuei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren datuak atarian daudela adierazi du, eta gainerako erakundeek aukera dutela horien berri emateko.

4. OSASUN GLOBALA, GINEA BISSAUKO OSASUN-SISTEMA PUBLIKOA INDARTZEKO PROGRAMARI BURUZKO INFORMAZIOA

Presidenteak Paul Ortegarari eta Mikel Sanchezari eman die hitza, Ginea Bissauko osasun-sistema publikoa indartzeko programa aurkez dezaten; lehena eLankidetzaren ordezkaria da, eta bigarrena Osasun Sailarena.

Paulek azaldu duenez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren, Osakidetzaren, eLankidetzaren eta Aida GKEaren arteko elkarlanetik sortu da programa, Eusko Jaurlaritza eta Ginea Bissauko Osasun Publikoko Ministerioa elkar ulertzeko memorandum baten esparruan. Bere esanetan, asistentziaren kalitatea hobetzea eta Simão Mendes Ospitale Nazionalako medikuen eta erizainen prestakuntza bultzatzea da xedea, epe luzera begira (lau urte, beste lau urtez luzatzeko aukerarekin).

Azaldu du martxoaz geroztik dagoela talde iraunkor bat ospitale horretan larrialdietako eta medikuntzako zerbitzuetan laguntzen; barne-medikuntzako 2 espezialistek eta erizain batek osatzen dute taldea. Eta, urritik aurrera, bloke kirurgikoari laguntzeko, kirurgiako, anesthesiako eta erizaintza instrumentistako profesionalen taldeak daudela martxan, txandaka.

Jarraian, herrialdeari buruzko datuak aipatu ditu. Giza Garapenaren Indize baxuena duten hamar herrialdeetako bat dela adierazi du, eta osasunaren arloan bizi duten egoerari buruzko zenbait datu eman ditu. Gogorarazi du programaren helburu orokorra Ginea Bissauko osasun-sistemaren kalitatea indartzea dela, eta programaren helburu espezifikoak zerrendatu ditu.



GINEA-BISSAU-dok-
gaztelaniaz.pdf

Dioenez, herrialdeko osasun-sistema babestea da kontua, administrazioan dauden gaitasunak baliatuta, hau da, bai Osasun Sailean, bai Osakidetzan. Gero, Mikel Sánchezi eman dio hitza Paulek.

Mikelek azaldu duenez, ekimena 2020ko udan izandako aurreko esperientzia batetik sortu zen; izan ere, Osakidetzako eta Osasun Saileko 14 profesional Perura joan ziren COVID-19aren tratamenduari buruz ikasi zutena Peruko homologoekin partekatzerara. Esperientzia oso positiboa izan zela aipatu du, eta hausnarketa sakona eragin zuela, eLankidetzaren ezagutza eta Osakidetzako giza baliabideak baliatuta, esperientzia egonkor bat nola lortu. Dioenez, abian jartzeko ezinbestekoa izan zen alde zuzeneko egoeraren azterketa sakona egitea, hainbat lan-hipotesi kontrastatzea eta, gero, izapideak egitea.

Era berean, adierazi du ekimena Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak beste sail batzuekin batera bultzatzen duen *2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programako* zazpi proiektu emblematicoetan sartzen dela.

Presidenteak eskerrak eman dizkie aurkezpena egiteagatik, eta erreakzioak, iruzkinak eta ekarpenak partekatzeko tartea utzi du.

Mila Domínguezek sailetatik egiten ari diren ahalegina eskertu du. Baina bi alderdirekin dituen zalantzak azaldu ditu: (i) Osakidetzako osasun-langileak Ginea Bissauko osasun-langileak prestatzera eramatea, han langile nahikoak badaudela eta helburu nagusia Osakidetzako langileak sensibilizatzea dela ulertuta; eta (ii) proiektu asistentzialista bat planteatzea, ohiko deialdi batean gertatuko ez litzatekeena.

Paul Ortegak erantzun dio herrialde hartan mediku generalistak baino ez daudela, eta Kubako misio mediko baten bitartez prestatu zirela, baina ez dagoela espezialistarik. Azaldu du langile espezialista gaituak eramatea dela helburua, ez misio medikoak egiteko, baizik eta zerbitzuan prestakuntza emateko. Ospitale horretan heriotza-tasa % 30 dela esan du, eta gauza asko daudela egiteko, hala nola protokoloak eta diagnostikoak. Eta hor, Osakidetzak, esperientzia handia duenez metatuta, balio diferentziala duela eskaintzeko. Mikel Sanchezek argitu du ez dela sensibilizazio programa bat, eta Osasun Publikoko Ministerioarekin elkar ulertzeko memorandum bat sinatu dela azaldu du, Simão Mendes Ospitale Nazionalean txertatu ahal izateko.

Jesús Ochoaren arabera, aztertu egin beharko litzateke sailak txertatzeko egiten den estrategia, Euskaditik defendatzen ari den lankidetzarekin bat egin dezan. Eta adierazi du ikusi egin behar dela proiektu asistentzialistetan nola txertatu gizartea eraldatzeko lan-ildoak, zehar-lerroak nola indartu eta abar.

Hurrengo saio batean gai hori zehatzago aztertzea proposatu du Noemí de la Fuentek.

5. LANKIDETZA DESZENTRALIZATUARI BURUZKO TXOSTENA AURKEZTEA ETA EGINDAKO AURRERAPENEI BURUZKO EZTABAIDA

Presidenteak jakinarazi du eLankidetzak bere gain hartu duela mundu-mailako lankidetzaren deszentralizatuari buruzko txosten bat egiteko lidergoa. Txosten hori urtean behin egiteko txosten sorta bateko lehena izatea da asmoa, gaiaren egoera zein den aztertu eta deszentralizatutako eragileen praktiketarik ikasi ahal izateko, dela estatuan, dela Europan, dela munduan. Eta lankidetzaren deszentralizatua aztertzen ibilbide luzea eginga duen Aitor Pérezi eta ECOPEReko bere taldeari eskatu die txosten hori egiteko.

Presidenteak Aitor Pérezi eta David Utrerori eman die hitza, txostenaren aurrerapena aurkezteko.

Eskerrak eman dituzte aukera eman dietelako, eta prestatzen ari diren txostena bi zatitan egituratuta dagoela azaldu dute: 1) Lankidetzaren deszentralizatuaren azterketa kuantitatiboa, ELGaren Garapenerako Laguntza Batzordearen datuetan oinarrituta; 2) Azterketa kualitatiboa, datu kuantitatiboetatik abiatuta ereduak sortzeko ideiarekin.

Datuak aztertzeko izan dituzten zailtasunen berri eman dute, espezifikotasun ezagatik. Eta atariko emaitzak aurkeztu dituzte. Azterketa kualitatiboari dagokionez, zuzeneko lankidetzaren azterketa hautatu izana justifikatu dute, garrantzi gutxi ematen baitzaio nazioarteko diskurtso nagusiaren aurrean, hau da, erakundeak beren ezagutzatik ekarpenak egitera bultzatzen dituen diskurtsoaren aurrean. Era berean, kasu esanguratsuak hautatzeko proposatutako metodologia azaldu du.



ecoper.%20Present
ación%20AVCD%20z

Joseanek eskerrak eman dizkie Aitorri eta Davidi aurkezpenagatik, eta adierazi du datu eta eredu horiek lagungarri izango direla aurrerago hausnarketak, estrategiak, politikak eta eztabaidak egiteko. Eta tarte bat utzi du azterketa aberastu dezaketen erreakzioak, iruzkinak eta ekarpenak partekatzeke.

Iñakik galdetu du zuzeneko lankidetzan zentratzea ote den asmoa. Aitorren arabera, txosten horretan zuzeneko lankidetzaz aztertuko da, baina urtero gai batean sakonduko da, adibidez, GGKEekiko lankidetzan edo beste alderdi interesgarri batzuetan.

Paul Ortegak gaineratu du, ELGaren edo Platformaren ad hoc txostenetatik haratago, lankidetzaz deszentralizatuari buruzko daturik eza identifikatzearen ondorioz sortu zela ikerketa hau egiteko beharra. Lankidetzaz deszentralizatuaren potentziala hedatzen lagunduko digun tresna izatea da helburua, adierazi duenez. Eta Euskadin eta beste eremu batzuetan elkarriketak sortzeko balio izatea espero du; eta laguntza deszentralizatuaz ulertzen lagunduko duela aipatu du.

Euskal Fondoako Juanma Balerdik lankidetzaz deszentralizatuaren irudi pixelatuagoa izateko zailtasuna dagoela baieztatu du. Eta udal-fondoek dituzten datuen eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak Ministerioari ematen dizkion datuen artean aldea dagoela nabarmendu du. Aitorrek erantzun du azterlanak dituen bi helburuez gain (lankidetzaz deszentralizatuaz ikusgai egitea eta esperientziak trukitzea), hirugarren bat ere badagoela, eta denboran garrantzia izan dezakeela; hain zuzen ere, sistema berrelikatzea eta ELGAN eragina izatea.

Irene Molerok esker ona adierazi du ekimenagatik eta aurkezpenagatik. Legearen esparruan izan diren elkarriketak aipatu ditu; lankidetzaz deszentralizatuaren garrantzia agerian geratu da elkarriketaz horietan, baina praktikan ez zitzaion ematen baduen balioa. Horrelako dokumentuak izatea tresna baliotsua dela adierazi du, lankidetzaz deszentralizatuak beharrezkoa duen errekonozimendua lor dezan.

Noemí positiboki nabarmendu du beste sail batzuei eskatzen zaien ahalegina, datuak emate aldera, horri esker egin daitezkeelako honelako azterketak.

6. GALDE-ESKEAK

Gai-zerrendako azken puntura iritsi garelarik, inork eskaerarik edo galderarik ba ote duen galdetu du presidentek.

Paul Ortegak jakinarazi du azaroaren 29an Garapenerako Lankidetzaren Ignacio Ellacuría saria emango zaiola Vandana Shiva-ri, eta ekitaldira joango direla baieztatu ez duten guztiei gonbidatuta daudela gogorarazi die. Horrez gain, saria eman ondoren eLankidetzaz piskolabisa eskainiko dela jakinarazi du, sarituarekin elkartu eta hitz egiteko aukera izatearren. Iñigo Egurenak aipatu du saritua ia aurkezpenik ere behar ez duen pertsona dela, nazioartean ezaguna, eta bertaratutakoak animatu ditu UPV/EHUK, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak eta eLankidetzaz antolatutako hitzaldira joatera; hitzaldia hilaren 30ean izango da, asteazkenarekin, arratsaldeko 18:00etan Donostian.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, presidenteak amaitutzat eman du bilkura 12:33an, eta eskerrak eman dizkie parte hartzeagatik; era berean, urte amaiera zoriontsua eta 2023. urte hasiera ona opa dizkie.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA**

JOSE ANTONIO RODRÍGUEZ RANZ

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO
PRESIDENTEA**